

MARI JOSE OLAZIREGI

"Ipuin batek izugarrizko mesedea egin diezaioke ia dena galdu duen bati; duindu egiten du pertsona"

Donostia. Renon aritzen den antzera hemen ere ez dago geldirik. Donostiako Miramar Jauregian, iragan astean, hiru egunez luzatu zen Haur eta Gazte Literaturako IV. Iberiar Batzarreko zuzendarietako bat izan zen.

Zein zen txikitako zure liburu kuttunena?

Pinotxo asko gustatzen zitzaidan. Aliciaren bertsio bat ere izan nuela akordatzen naiz. Klasikoak. Eburne Zuri eta horrelakoak biltzen zituen Tradiziozko ipuinak liburua ere gogoan dut.

Eta behin koskortuta?

Literatura esperimentalak. Italo Calvino idazlea bereziki: Hiri ikusezinak (1972), adibidez. Estilo horretako literatura oso gustuko dut.

Zein liburu dituzu etxeko gau-mahaian?

Uf! Une honetan hiru: ingelesez idatziak guztiak. Baita ipuin mordo bat ere bi urteko semeari gauero irakurtzeko.

Galtzagorri elkarteak izan da Miramar jauregian, ostegunetik larunbatera luzatu zen biltzarraren sustatzaile nagusia. Galtza bete lan?

Bai. Oro har, elkarteko zuzendaritza batzordea oso lan ona egiten ari da. Galtzagorri 1990ean sortu zen eta egunez egun, gero eta lan gehiago dauka: azokak diseinatu, dinamizazio ekintzak Baita arrakasta handia duten jarduerak bultzatu ere: Liburu gaztea, Liburuaren altxorra

Gainera, adin nagusiko egin da; 18 urte bete ditu.

Eta jaio zen xedeari heltzen dio. Hau da, euskarazko haur eta gazte literatura bultzatzea. Ezagutzea ematea. Ikerketa eta informazioa bideratzea. Eta batez ere, azkenaldian, euskarazko irakurzaletasuna sustatzea.

Eta egitasmoen oihartzuna ahaleginaren parekoa al da?

Milaka gazte literatura eskain-tza jasotzen dute Liburu gaztea ekimenaren eskutik. Egitasmoak izugarrizko arrakasta du eskoletan. Baita herriz herri liburuz beteta ibiltzen diren kurtxuak ere. Hau da, Liburuaren altxorak. Urteko produkzioa azter-tzen duten irakurketa mintegiak ere ezin dira ahanzi. Elkarrekin gero eta egitasmo eta lan gehiagotan murgilduta dabil.

'Desberdin irakurri: haur eta gazte liburua kultura aniztasunean' izan zen biltzarraren leloa.

Desberdintasunaren aldeko aldarria egin dugu. Zorionez, gizarteak gero eta anitzagoa da, jatorri ezberdineko jendearen kulturaz janzten baita. Inmigrazioa puri-purian dago. Kultur aniztasunaren erronkak galderak sortzen ditu: hezkuntzari buruz, irakurketaren sustapenari buruz, irakasleen formazioari buruz Baita literatura kritikaren inguruan ere. Alor horiek landu ziren biltzarrean.

Nazioarteko IBBY erakundeko presidenteak, Patricia Aldanak, biltzarrean parte hartu zuen.

Hala da. Lehen abizena jatorri euskaldunekoa du gainera Kanadan bizi den guatemaldarrak. IBBY, dudarik gabe, haur eta gazte literaturan dagoen mundu mailako erakunderik inportanteena da. Ni ba-tzorde betearazlean egon nintzen bi urtez. Ohorea izan da guretzat eta bermea eman dio biltzarrari Patricia Aldana Donostiara etorri izanak. Tsunamiak izaten direnean, adibidez, hasieran elikagai eta medikamenduek izaten dute lehentasuna. Ondoren, ordea, beste era bateko elikagaiak behar izaten dira: liburuxkak. Ipuin batek izugarrizko mesedea egin diezaioke ia dena galdu duen bati. Duindu egiten du pertsona. IBBYk lan handia egiten du esparru horretan.

Bi urtetik behin antolatzen da biltzarra.

Bai. Aurreko edizioak Caceresen, Santiagon eta Valentzian egin ziren. Galtzagorri, OEPLiren (Haur eta Gazte Libururako Erakunde Espainiarra) barruan dago; euskal adarra gara. Iberiar penintsulako instituzio literario bakanetarikoa izango da zinez demokratikoa dena. Espainiako nortasun aniztasuna errespetatu eta sustatzen baitu. Galegoz, katalanez, gaztelaraz eta euskaraz idazten dugunok boto bana dugu erabakiak hartzeko orduan. Hizkuntz aniztasuna asko errespetatzen denez, biltzarreko hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania izan ziren.

Asko argitaratzen da, baina irakurri?

Euskararen erabilera beherantz doan bezala -nahiz eta inkestek gazte hitzun geroz eta gehiago dagoela esan- ez dakit benetako interesik ba ote dagoen irakurzaletasuna bultzatzeko. Oso zuzena da euskal irakurzaletasunaz arduratzea, baina ez dago kultur politikarik. Zerbait gehiago egin behar dugu beherantz egiten baitu euskarazko irakurzaletasunak adinarekin. Andu Lertxundik esan zuen bezala, euskarazko transmisioan defizita daukagu. Hau da, guztia euskaraz ikasi duten gazteek, eta euskaldun direnak, zergatik dituzte askotan zailtasunak gozatuz irakurtzeko? Guztion inplikazioa -gurasoena, irakasleena...- behar duen erronka handia dauka gizarte osoak.

Biltzarrean jorratu zen gaietariko bat inmigrazioa eta haur eta gazte literatura izan zen.

Kultur aniztasuna aberastasuna da eta denok dugu gure lekua. Euskara ere duindu nahi dugu. Felix Etxeberria pedagogia katedradunak hitz egin zuen inmigrazioaren inguruan. Hemengo etorkin kopurua ez da Espainiako hainbat lekuetan bezain handia. Gehienak Hego Ameriketakoak dira eta gaztelania dute ama hizkuntza. Nola landu daitekeen aniztasuna? Adibidez, eskoletan herrialde bakoitzeko kultura eta hizkuntza ezberdinen inguruko egunak antolatuz. Hau da, kanpokoa duinduz eta aldi berean, gurea, ahal den modurik erakargarrienean zabalduz. Ez dugu kanpotik datozenen nortasuna ukatu behar, ezta gurea ahaztu ere.

Zein dira kultur aniztasunaren aurrean euskal literaturak dituen erronkak?

Euskal literaturak aspaldian hartu zuen lekukoa. Idazle asko ditugu horren adibide, Patxi Zubizarreta, Juan Kruz Igerabide, Mariasun Landa, Felipe Juaristi, Bernardo Atxaga... Hainbaten lanetan azaltzen dira pertsonaia arabiarrak, bosniarrak, txinatarrak... Euskaraz hitza ematen zaie, baita euren hizkuntzetan ere. Hori baita benetako erronka; bestea entzutea eta onartzea. Kutsa-tze zoragarri hori denontzat da ona gurea aberastu egiten baitu. Elisa Bonillak, biltzarrean parte hartu duen hizlari batek esan zuen bezala, liburuak, batetik leihoak dira, kanpokoa ezagutzeko eta bestetik, ispiluak, gure burua ezagutzeko. Euskal literatura ere leiho eta ispilua da.

Egungo itzulpengintzaren joerak ere jorratu zenituzten.

Kultura-aniztasunak erronkak sor-tzen ditu. Itzulpengintzan bi norabide nagusi daude. Asimilazioa, kanpoko hitzak zureganatzea, eta bestea, kanpoko hizkuntza baten ' markak ' testuan uztea. Hau da joera nagusia. Adibidez, Mario Santanak, Chicagoko unibertsitateko irakasleak esaten du, Soinu jolearen semea liburuan oso egokia dela gaztelaniazko itzulpenean euskarazko hitzak tarteka-tzea. Hibridotasuna ez dugu urrun: spanglish, euskalglish Hots, bi hizkuntzetan hitz egiten duen jendearen errealitatea. Euskal literaturak gaztelaniazko merkatuarekin erabateko menpekotasuna du; ia %80 gaztelaniara itzultzen da. Alderantzizkoa ez da hainbeste gertatzen. Bestalde, galegora eta kataluniarrera ere itzultzen ari gara.

Nazioarteko 300 partaidetik gora hartu zituen biltzarrak: bibliotekariak, ilustratzaileak

Haur literaturak hori du alde ona. Literaturan ez daude soilik idazle eta irakurleak inplikatura, jende asko baizik. Baita ilustratzaileak ere. Liburuak, bestalde, irakasle, guraso edo bibliotekarien bidez ezagutarazten dira. Denok dugu zeresana. Esaterako, ilustrazio txar batek liburu bat hondatu dezake; eta on batek edertu.